

Europako hauteskundeak eskola segregatuetan bozkatuko dira: premiazko gizarte-eztabaida.

Europar Batasun (EB) osoko herritarrak datozen ekainaren 6tik 9ra hauteskontzietara deituta daude. Pertsona askok beren auzoetan kokatutako eskola segregatuetan emango dute botoa. Eskola horietara noizean behin joaten dira botoa ematera, baina normalean ez seme-alabak eskola horietan eskolatu dituztelako.

Ironia triste hori aprobetxatuz, guk, Batasun osoko erakunde zibikoek, ohartarazi nahi dugu eskola-segregazioak bete-betean eragiten diola gizarteari: hainbat eskolatan eskolatzen direnez, jatorri eta egoera sozioekonomiko desberdineko haurrak elkarrengandik bereizita bizi dira EB osoan, lehendik zeuden gizarte-hausturak elikatuz eta batzuentzat pribilegiozko eta beste batzuentzat bazterketako etorkizunak marraztuz.

Horrela, gure gizarteak, eta batez ere gure hezkuntza-sistemak, desagerrarazteko borrokan egon beharko luketen aurreiritziak naturalizatu egiten dituzte haurrek. Baina horrek ez du zertan horrela izan: eskolak dira, hain zuzen ere, etorkizun partekatua eraikitzeke aukerarik onena. Eta eskola publikoak, Europako hezkuntza-sistemaren bizkarrezurra, beti izan dira – eta izan behar dute – gobernuaren inbertsio nagusia etorkizun hori eraikitzeke helburuan, horiek bermatzen baitute gure gizarteentzat nahi dugun sistema inklusiboa. Tamalez, ordea, administrazio publikoek ez dute politikarik egiten egoera larri horri aurre egiteko.

Horrek EB, oro har, inflexio-puntu batean jartzen du aldaketa demografikoen eta gero eta handiagoa den aniztasun sozialaren aurrean, eta zuzenean interpelatzen ditu administrazioak, Europako, estatuko eta eskualdeko mailetan: benetan onartzen al ditugu balio demokratikoak eta giza eskubideekiko errespetua sustatzen al dugu? Ala gizarte-eraldaketa horien aurrean, ideia diskriminatzaile eta are xenofoboetarantz goaz?

Ondoriozta daitekeenez, hezkuntza-eztabaida baino askoz gehiago da hori; edo, nahiago bada, gure garaiko hezkuntza-eztabaida handienetako bat da, Hezkuntza letra larriz ulertuta.

2022ko azaroan, EBko Kontseiluak "Eskola arrakastarako bideei buruzko Kontseiluaren gomendioa" onartu zuen, 2011ko "Eskola-uzte goiztiarra murrizteko politikei buruzko Kontseiluaren gomendioa" ordeztzen duena. Bere esparru politikoan, estatu kideak berriro animatu ziren segregazioaren aurkako politika aktiboak sustatzera, beren neurrietako bat bezala. Hemendik 2025era bitartean, EBko estatu kideak "eskola-arrakastarako estrategia integralak eta integratuak" garatzera deituta daude, jatorrizko maila sozioekonomikoaren desberdintasunak hezkuntzaren eta prestakuntzaren emaitzetan eragiten dituen ondorioak minimizatzeko, eremu horretako inklusioa sustatzeko, eskola-uzte goiztiarra murrizteko eta oinarritzko hezkuntzan errendimendu txikia lehengoratzeko.

Eskolako gizarte-aniztasuna posiblea izateaz gain, desiragarria ere bada, betiere segregazioa eta ghattizazioa eragiten ez badu. Hori posible da legegintzako neurriak ezarriz eta gizarte osoaren parte-hartze aktiboaren bidez. Europako erakunde zibikoak

garen aldetik, arduradun politikoei eskatzen diegu aktiboki ekin diezaiotela, honako neurri hauek sustatuz:

Proposamenak eta gomendioak Europako erakundeetan:

1. Arreta berezia jartzea eskola desegregatzeko politiketan, eskola-arrakastarako estrategia integratu eta globalen garapenari eta jarraipenari laguntzeko.
2. Eskola desegregatzeko neurriei lehentasuna ematea, Europako Hezkuntza Esparruaren agendan eskola-arrakastarako politiken parte diren aldetik.
3. Estatu kideekin lankidetzan aritzea EB mailan eskola-segregazioaren adierazle komunak garatzeko, estatu kideen arteko alderagarritasuna ahalbidetzen duten nazioarteko iturri erabilgarriak oinarritzat hartuta, eta adierazle horiek hezkuntza-ekintzen jarraipen-mekanismoetan txertatzea.
4. 2021-2027 EBko Kohesio Politikako Funtsen egungo programazio-aldiaren esparruan, eskola desegregatzeari ekiteko neurrien garapena sustatzea, bai hezkuntzako helburu espezifikoaren programazioan, bai funtsen balizko birprogramazioan, bai EBko beste programa eta ekimen garrantzitsu batzuen bidez.
5. Eskola segregazioa ekiditeko plan eta politikei buruzko jarraibideak prestatzea, estatu kideei laguntzeko, beren estrategia nazional integratuak eta globalak garatzen, eskola-arrakastarako bidean.
6. Batzordearen txosten eta ikerketa espezifikoak garatzea, politika nazionaleri eta eskola-desegregazioaren ikuspegi eraginkorrei buruzkoak; esate baterako, Eurydiceren, Hezkuntzaren Ekonomiako Adituen Europako Sarearen (EENEE) eta Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren Dimentsio Sozialean Lan Egiten duten Adituen Sarearen (NESET) bidez.
7. Hezkuntza eta Prestakuntzako Monitorearen etorkizuneko edizioetan eta Europako Sei hilekoari lotutako jarraipen-prozesuetan arreta berezia jartzea eskola-segregazioari.
8. Europako Hezkuntza Esparruaren Esparru Estrategikoko lankidetzaren prozesuen barruan, desegregazio-politika aktiboari buruzko ikaskuntza handiagoa sustatzea parekoen artean.
9. Lankidetzaren, ikerketa, ezagutza eta berrikuntza lehenestea, Erasmus+ eta Horizonte Europa programen deialdietan, besteak beste.
10. Lehen aipatutako neurri, politika, programa eta plan guztiek printzipio hau izan behar dute gidari: eskola publikoa da eta izan behar du gure hezkuntza-sistemen bizkarrezurra.

Estatu kideentzako proposamenak eta gomendioak

1. Hemendik 2025era bitartean garatu eta/edo indartu behar diren "eskola-arrakastarako estrategia integratu eta globalen" helburu estrategiko gisa sartzeari eskola-desezegrazioa, Eskola Arrakastarako Bideei buruzko Kontseiluaren 2022ko azaroaren 28ko Gomendioaren arabera.

2. Egoeraren diagnostikoa egitea eta eskola-segregazioa adierazle komunen bidez monitorizatzea, eskualdeen eta Europar Batasunaren arteko alderagarritasuna ahalbidetzen duten nazioarteko iturriak erabiliz, eta dagozkien esku-hartzeak ebaluatzea.

3. Europako funtsak baliatzea hezkuntza- eta prestakuntza-sistemetan eskola-bereizketa murrizten eta ezabatzen lagunduko duten neurriak hartzeko, eta horiek inplementatzeko ikuspegi egokiak eta aurrekontu-esleipen nahikoak bermatzeko.

4. Eskoletan kohesioaren, inklusioaren eta aniztasunaren aldeko gizarte-sentsibilizazioko kanpainak sustatzea.

5. Arau-esparruak garatzea eta aplikatzea, eskola-segregazioaren aurkako neurri eraginkorrak eta iraunkorrak ezartzeko.

6. Gizarte zibila eta nazio- eta eskualde-mailako hezkuntza-eragileak inplikatzeko dituzten gizarte-koalizioak eta -akordioak sustatzea.

7. Lehen aipaturako estrategia, neurri, kanpaina eta plan guztiek printzipio hau izan behar dute gidari: eskola publikoa da eta izan behar du gure hezkuntza-sistemen bizkarrezurra.

Sinatzaileak:

- | | |
|--|--|
| 1. Appel pour une école démocratique/
Oproep voor een democratische school -
Belgika | 12. European Cities Against School
Segregation (ECASS) - Internazionala |
| 2. Associacions Federades de Famílies
d'Alumnes de Catalunya (aFFaC) -
Katalunia | 13. Euskal Eskola Publikoaz Harro topagunea
-Euskal Herria |
| 3. Brug Folkeskolen - Danimarca | 14. Federació d'Associacions de Veïns de
Barcelona (FAVB) - Katalunia |
| 4. Centres d'Entraînement aux Méthodes
d'Éducation Active - Belgika | 15. Fédération des Conseils de Parents
d'Élèves (FCPE) - Frantzia |
| 5. Chance für jedes Kind - Austria | 16. Fundació Bofill - Katalunia |
| 6. Changements pour l'égalité (CGé) -
Belgika | 17. Fundación Empieza por Educar (ExE) -
Espainia |
| 7. Collectif Apprendre Ensemble - Frantzia | 18. Fundación Secretariado Gitano - Espainia |
| 8. Col·lectiu d'Escoles contra la Segregació -
Katalunia | 19. Kenniscentrum Gemengde Scholen -
Herbehereak |
| 9. Comissions Obreres-Educació (CCOO) -
Katalunia | 20. La Fabrique du Nous - Frantzia |
| 10. Controvento Società Cooperativa Sociale
Onlus - Italia | 21. No Ghetto -Frantzia |
| 11. Escoltes Catalans - Katalunia | 22. Plataforma d'Infància de Catalunya
(PINCat) - Katalunia |
| | 23. School in zicht - Belgika |
| | 24. Welkom in mijn Wijk-Herbehereak |

Supported by:



ASSOCIACIONS FEDERADES
DE FAMÍLIES D'ALUMNES
DE CATALUNYA

